


Haur Eskolako 2025/2026 ikasturterako matrikulazio-epea

2025/2026 ikasturterako, **2023an, 2024an eta 2025ean** jaiotako haurrak matrikulatzeko epea **martxoaren 31tik apirilaren 11ra** bitarte egongo da zabalik.

Matrikula egiteko aurretik ordua eskatu behar da 943374061 telefono zenbakira deituz edo haureskola@udarregi.eus helbidera idatziz.



Jangela apirilaren 11n

Apirilaren 11ko eguerdian DBH, LH eta HH 3-6 urtekoen eskolak 12:30ean amaitzen direnez, jangelako bazkaldarrak **etxera bakarrik** joatea nahi izanez gero, **baimena** usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz eman beharko da. Haurren bila heldu batek bertaratu behar badu, **kontutan izan, haurrak 14:30ak baino lehenago jaso behar dituzuela**. Gogoratu, LH4tik beherako haurrek ezin dutela bakarrik joan etxera, soilik LH3. mailakoek gurasoen baimen idatziarekin. HH-ko eta LH1 eta LH2-ko ikasleak anai-arrebarekin joan daitezke etxera, baldin eta LH4. mailan badago gutxienez.



Bestalde, eguneroko bazkaldarrei gogorarazi nahi diegu, egun horretan **jangelako zerbitzua erabili behar ez badute**, ahalik eta azkarren usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz **jakinarazi** behar dutela.

Garraio publikoa erabiltzeko txartela

Euskotren-etik jakinarazi digute hemendik aurrera taldeko txartela ateratzeko aukerarik ez dela izango eta Eusko Jaurlaritzak onartu duen hobari sistema kontutan izanik, Zuzendaritza Taldeak irteeretarako, ahal den neurrian, garraio publikoa erabiltzea lehenetsi du. Hori horrela, irteerak modu egokiagoan eta merkeago egite aldera, gomendatzen da **ikasle bakoitzak bere Mugi txartela ateratzea**. Era horretan, 12 urtetik beherakoek doan bidaiatuko dute eta gainerakoek %50eko deskontua izango dute.



Intsektuentzako babesguneak

DBH 1eko ikasleekin eta nahi duen guztiarekin, sagastientzako eta baratzetako hain onuragarriak diren intsektuak erakartzeko babesguneak egiteko tailerra antolatu da.

Agerreazpiko baratzetan izango da apirilaren 10ean, osteguna, 14:30etik 16:30era.

Irakaslea Mateo Regla izango da, ingurumen zientzien dibulgazioan aditua.

Izen-ematea 943 361114 edo www.alkartasuna.eus webgunean. [Horma-irudia](#)



Agerialdeko eraikinean lanak

Agerialdeko eraikinean eguzki plakak jartzeko egin diren lanak amaitu dira. Berriz ere gure betiko antolaketan jarraituko dugu.

Aurre aldeko errepidea eta sarrera berriz ere erabilgarri daude.

Gogorarazten dizuegu, zaintza-zerbitzua eta jangela zerbitzua dela-eta, atzeko jolaslekuko langa ez dela 8:50 eta 14:20 arte irekiko.



Izan Hartintzar Eguna

Maiatzaren 10ean, Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolaren aldeko elkartasun-eguna antolatu da. Hezkuntza Sailak ezarritako isunari erantzuteko elkartasun ekimena izango da eta hainbat ekintza antolatu dira, besteak beste, esperimentazio guneak, malabarak, trebetasun jolasak, bertso-triki poteoa, bazkaria,... [Ikus egitaraua](#).



Zarauzko Ikastolak boluntarioak eskatu ditu egun horretarako:

- Mahaiak jartzeko
- Janaria berotu eta zerbitzatzeko
- Mahaiak jasotzeko

Bazkari-txartelak Udaregi Ikastolako idazkaritzan salgai izango dituzue astelehenetik aurrera.

Animatu parte hartzera!!

Udal-dirulaguntzak

Usurbilgo kirol-saileko dirulaguntzen artean, eskolaz kanpoko kirol jarduerak laguntzeko dirulaguntza argitaratu da (oinarriak GAO 30, 2025/02/14 <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/02/14/c2500822.pdf>)

Bete beharreko baldintza horiek guztiak [hemen](#) daude laburbilduta.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Klub/erakundearen ziurtagiri zigitatua (izena eman duela eta zenbat ordaindu duen egiaztatzen duena)
- Ordainagiriak
- [2.a eranskina](#) eta [2.f eranskina](#).

Dirulaguntza horretako lehenengo **eskaera-epea 2025eko apirilaren 30ean** amaitzen da. Gero bigarren epe bat egongo da, 2025eko azaroaren 12ra arte.



Usurbilgo Udala

Udajolas udalekua

Aurten ere, iritsi da, Udajolasen izena emateko unea. Usurbilgo 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat udalekua da, aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz pasatzeko aukera. Informazio gehiago [hemen](#).



Euskaraldia

Larunbat honetan, apirilak 5, 12:30etik aurrera Sutegiko atarian Euskaraldian izena emateko eta txapak eskuratzeko aukera izango da.



HAUR HEZKUNTZA

Paperezko poltsa

Gogorarazi nahi dizuegu zuen seme-alabek hiruhilabete honetan egindako

lanak etxera eramateko paperezko poltsa ekartzeaz.



Zorriak

HH 5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

Ebaluazio-txostenak

Apirilaren 9an, igoko dira 2. hiruhileko ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora.

Zorriak

LH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Sexu-heziketa

Datorren astean asteleheneetik ostegunera, LH 5eko eta LH 6ko ikasleek Sexu heziketako saioak jasoko dituzte.



Irteeren kobrantzak

- **LH6:** Datorren **astelehenean**, apirilak 7, Txuri-Urdineko irteeraren kobrantza egingo da: **kostua 11,50€** (busa: 7 € + sarrera 4,5 €)
- **LH5:** Datorren astelehenean, apirilak 7, Txuri Urdineko eta Pagoetako irteeren kobrantza egingo da. **Kostua 25 €** izango da.
 - Txuri-Urdin izotz jauregia 11,50 € (autobusa: 7 € + sarrera: 4,5 €)
 - Pagoeta: 13,50 € (autobusa: 9 € + sarrera: 4,5 €)
- **LH3:** Datorren **ostiralean**, apirilaren 11n, hiruhileko honetan egindako irteeren kobrantza egingo da; baita Irrisarrilanderan egingo dugunaren 2. zatia ere.
 - Txuri Urdin izotz-jauregia 11,50 €: 7 € autobusa, 4,50 € sarrera.
 - "Topic" txotxongiloen zentrua 12,80€: 4,80 € autobusa, 8 € sarrera eta tailerra.
 - Irrisarrilanderako 2. zatia: 20 € aurrerakina



Denera 44,30 € kobratuko dira.

LH6-ko familientzat oharra

Datorren ikasturtean DBH1. Mailan eskainiko diren hautazko irakasgaien azalpena emateko bilera bat antolatu da datorren asteazkenerako, apirilak 9, 18:00etan Udaregi ikastolako eraikin gorrian.




Arropa galdua

Agerialdeko sarreran dagoen arropa galduen txokoan dagoen arropa apirilaren 11n, hustuko da.



Ikastola-Eguneko bazkaria antolatzeako deialdia

Ekainaren 7an Ikastola Eguna ospatuko dugu eta, urtero bezala, bazkaria antolatzeako gurasoen laguntza ezinbestekoa dugu. Astelehenean bilera egin genuen eta bertan, lantaldeak osatzen hasi ginen. Lantaldereen batean [izena ematera](#) gonbidatzen zaitugu. Horretarako bete ondorengo inprimakia.



Irakurketa-solasaldia

Haur eta gaztetxoentzako solasaldi berri bat antolatu dugu Sutegi Liburutegian. Harkaitz Canoren ORKESTRA LURTARRA izango dugu mintzagai, beste behin, Yolanda Arrietaren laguntzaz.

Saioa 9 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzenduta dago (LH4-LH6), eta **maiatzaren 7an**, asteazkenarekin, 18:00etan egingo dugu. Dagoeneko **eskuragarri dugu aipatu liburuaren hainbat ale liburutegian, interesa duenak maileguan har dezan.** [Horma-irudia](#)



XUT: Udaberriari keinu

Naturarekin bat eginez, udaberria interpretatuko dugu irudiz eta hitzez. Banakako zein taldeko ariketak egingo ditugu hiru dimentsiotako irudiak sortuz. Tamaina handian margotu eta idatziko dugu. Animalia eta landare desberdinak azalduko dira bertan. Garaiari loturiko soinu eta onomatopeiek ere jantziko dute lana. Bukatzeko, ipuin ezberdinak sortuko ditugu.

-Egunak: apirilak 22, 23, 24 eta 25

-Ordua: 10:30-12:00

-Ikastaroaren emaila: Zorione Mendez

-Nori bideratuta: 7 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei

-Lekua: Ikastola



- Prezioa: 50 € pertsonako (BEZ-a eta materiala barne)
- Izen-ematea: apirilaren 18ra arte [galdetegiaren bidez](#).

DBH

Irteera DBH2

DBH2. mailako Plastika eta Ikusentzunezko arloetan dauden ikasleak datorren asteko asteazkenean, apirilak 9an, Tabakalerara joango gara. Bertan, Medialab eta hezkuntzako taldearekin kultura garaikideari gerturatu eta lantegi batzuk egingo dira. Hortaz gain, Tabakalerako eraikina ezagutu eta bertan dauden proposamen eta aukerak ezagutuko ditugu.

(Mugi txartela ekarri behar dute)



DBH3-ko familientzat oharra

Datorren ikasturtean DBH4. Mailan eskainiko diren hautazko irakasgaien azalpena emateko bilera bat antolatu da datorren asteazkenearako, apirilak 9, 17:00etan Udarregi ikastolako eraikin gorrian. Bilerak ez da ordubete baino gehiago luzatuko.



Eskola kirolaren antolaketa Usurbilen: Infantilak

Maiatzean 25-26 ikasturteko eskola kiroleko izen-ematea irekiko denez, datorren ikasturtean infantil kategoriako (DBH 1-2) seme-alabak izango dituzten familientzako bilera informatibo bat burutuko da datorren astean.

EGUNA: apirilak 10, osteguna

ORDUA: 18:30

LEKUA: Agerialdeko jangela

GAI ORDENA:

1. Eskola Kirola Gipuzkoan: marko orokorra
2. Eskola Kirola Usurbilen
 - a. Antolaketa
 - b. Eragileak
 - c. Ildo pedagogikoak
3. Infantilen antolaketa
 - a. Lan ildoak
 - b. 25-26 ikasturteko izen-ematea eta taldekatzeak
 - c. Etorkizun hurbilera begira

